



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko maiatzaren 2a

55. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Corellako Udalaren 2016ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.(4. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Corellako Udalaren 2016ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko martxoaren 26 eguniko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Corellako Udalaren 2016ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko martxoaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Corellako Udalaren 2016ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (5. or.).

II. Iritzia (7. or.).

II.1. Auditoria finantzarioko iritzia (7. or.).

II.2. Legezkotasuna betetzeari buruzko iritzia (8. or.).

III. Udalaren 2016ko kontu orokorraren laburpena (9. or.).

III.1. 2016ko aurrekontu bateratuaren beteazpenaren egoera-orria (9. or.).

III.2. 2016ko aurrekontu-emaitza bateratua (9. or.).

III.3. Diruzaintzako gerakin bateratuaren egoera-orria 2016ko abenduaren 31n (10. or.).

III.4. 2016ko abenduaren 31ko balantze-egoera bateratua (10. or.).

III.5. 2016ko ekonomia- eta ondare-emaitzen kontu bateratua (11. or.).

IV. Iruzkina, oharra eta gomendioak (12. or.).

IV.1. Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2016ko abenduaren 31n (12. or.).

IV.2. Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea (14. or.).

IV.3. Alderdi orokorrak (15. or.).

IV.4. Langileak (16. or.).

IV.5. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (19. or.).

IV.6. Transferentzia arruntengatiko gastuak eta kapital- transferentziengatiko gastuak (21. or.).

IV.7. Inbertsioak (22. or.).

IV.8. Aurrekontuko diru-sarrerak (23. or.).

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2017rako jarduketa-programari jarraituz, Corellako Udalaren 2016ko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu du. Honako hauek osatuta daude kontu horiek, funtsean: aurrekontuko likidazioaren egoera-orriak, aurrekontu-emaiza, diruzaintzako gerakina, balantzea, emaitza ekonomiko eta ondarez-koen kontua eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion oroitidazki ekonomikoa.

Urteko kontuen finantza-auditoriarekin batera, legezketasuna betetzeari buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honako honi buruzko iritzi bat eman ahal izateko: ea Udalak ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2016ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Corellako Udalarari 2016ko ekitaldian aplikatzeko zaion arau-esparrua, funtsean, honako hauek osatuta dago: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea eta Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoa, bai eta sektorekako araudi indarduna ere. Halaber, nabarmendu behar dugu 2016ko aurrekontua aurkezten dela Nafarroako Gobernuak irailaren 23ko 234/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsi zuen toki entitateen aurrekontu-egitura berriari jarraituz.

Corella udalerrriak 81,1 km²-ko azalera du, eta 7.642 biztanle dauzka 2016ko urtarrilaren 1ean.

Corellako Udalak organismo autonomo bat dauka, San José etxe-egoitza 2016an, bi enteek honako informazio hau aurkeztu zuten:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2016-12-31n
Udala	5.840.038	6.301.274	61
San José etxe-egoitza erakunde autonomoa	1.100.543	1.084.356	30
Bateratzearen doitzeak	- 60.000	- 60.000	
Bateratua, guztira	6.880.582	7.325.630	91

2016an, Udalak 60.000 euroko ekarpena egin dio, guztira, bere erakunde autonomoari.

Udalak ondoko mankomunitateetan hartzen du parte:

a) Erriberako Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatea, hiri-hondakin solidoen kudeaketarako eta tratamendurako.

b) Moncayoko Ur Mankomunitatea, ur hornidurako zerbitzuak emateko.

c) Ebroko Kirol Mankomunitatea, zeinak kirol zerbitzuak ematen baititu.

Mankomunitatutako zerbitzu horiek guztiek honako gastu hau ekarri diote Udalarari:

Zerbitzuak	Udalarentzako gastua, 2016an
Erriberako Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatea	10.073
Moncayoko Ur Mankomunitatea	59.506
Ebroko Kirol Mankomunitatea	13.000
Guztira	82.579

Horrenbestez, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua hurrengo taulan aipatzen direnak dira:

Udal zerbitzuak	Udala	Erakunde autonomoak	Mankomunitatea	Zerbitzuen kontratuak
Administrazio zerbitzu orokorrak	X			
Musika eskola				X
Kirol jardueren kudeaketa				X
Kirol- eta kultura-jarduerak	X			
Udal instalazioen garbiketa				X
Kale garbiketa				X
Kultur etxearen atezaintza				X
BHiko kiroldegiko gimnasioko atezaintza				X
Hiri hondakinak			X	
Ur-hornidura			X	
Etxez etxeko laguntza zerbitzua				X
Ibilgailuak bide publikotik eramatea				X
Oinarrizko gizarte-zerbitzuak	X		X	
Enplegurako orientabideak	X			
Agentzia exekutiboaren diru-bilketa				X
Kirol instalazioen kudeaketa	X			
Hirigintza	X			
Adinekoentzako arreta		X		
Liburutegia	X			
Autobus geltokiko taberna				X

2016ko ekitaldirako aurrekontu orokorra 2015eko abenduaren 29an onetsi zuen, hasiera batez, Udalaren Osoko Bilkurak; behin betiko onespena, berriz, 2016ko otsailaren 11n eman zitzaion.

Txostena lau ataletan dago banatuta, sarrera hau barne. Bigarren atalean, 2016ko ekitaldiko kontu orokorraren inguruko gure iritzia azaltzen dugu. Hirugarrenean, Udalaren finantzen egoerari bateratu nagusien laburpen bat ematen dugu. Laugarrenean, zenbait ohar eta ondorio jaso ditugu (honako gai hauei buruzkoak: egoera ekonomiko eta finantzarioa, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea eta kudeaketaren beste alderdi garrantzitsu batzuk), bai eta Udalaren antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun gomendioak ere.

Landa-lana 2017ko urrian eta azaroan egin zuen enpresa kontratatu batek, Kontuen Ganberaren zuzendaritzaren pean eta bertako auditore batek gainbegiratuta. Halaber, Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntza izan da.

Jarduketa honen emaitzak Corellako Udaleko alkateari jakinarazi zitzaizkion, kasua bazen egokitzat jotzen zituen alegazioak aurkez zitzan, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz. Ezarritako epea iraganda, alkateak alegazio bat aurkeztu du. Haren testua txostenean sartu da (IV.8.a atala).

Eskerrak eman nahi dizkiegu Corellako Udaleko eta haren erakunde autonomoko langileei lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. IRITZIA

Corellako Udalaren 2016ko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu dugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako III. atalean.

Udalaren erantzukizuna

Udalaren kontu-hartzailtza da kontu orokorra egin eta aurkezteko ardura duena. Halako moduz egin behar du non kontu horrek leialki irudikatuko baititu Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzepzioa, ezarpena eta mantentzea.

2016ko kontu orokorra 2017ko ekainaren 15ean onetsi zuen Udalaren Osoko Bilkurak.

Udalak, urteko kontuak egiteko eta aurkezteko erantzukizunaz gainera, bermatu beharko du urteko kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontrolako sistemak ezarri beharko ditu.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea, gure fiskalizazioan oinarrituta, 2016ko kontu orokorraren fidagarritasunari buruz eta egin diren eragiketen legezketasunari buruz.

Horretarako, erantzukizun hori bete dugu kanpo kontroleko erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarriko printzipioen arabera. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta betearaztea egin ditzagula ere, honako helburu honekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio honek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbatekoei eta kontu orokorretan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezketasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezketasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasunaren eta arduradunek egingandako kontabilitate-estimazioen arrazoizketasunaren ebaluazioa, bai eta kontu orokorren aurkezpenaren ebaluazioa ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia biltzen du finantzen eta betetzearen gainean egin dugun fiskalizazioari buruzko iritziak funtsa izateko.

II.1. AUDITORIA FINANTZARIKO IRITZIA

Iritziaren oinarria, salbuespenekin

Udalaren eta bere erakunde autonomoaren ondasunen inbentarioa 1991koa da, eta gaurko-tzeko dago. Horrenbestez, ezin dugu egiaztatu egoera-balantze bateratuko ibilgetuari dagokion kontabilitate-saldoaren arrazoizketasuna; saldo hori 31,25 milioikoa da 2016ko abenduaren 31n.

Iritzia

Gure iritzian, "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" atalean deskribatutako norainokoaren mugarengatik ez bada, Udalaren kontu orokorrak irudi zehatza erakusten du alderdi esanguratsu guztietan, ondareari, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta Udalaren 2016ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez Halaber, kontu orokorrak emaitza ekonomiko eta

aurrekontukoak islatzen ditu, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkionak, aplikatze-koa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

II.2. LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Iritziaren oinarria, salbuespenekin

a) Langileen kudeaketaren arloan, zenbait ez-betetze aurkitu dira; funtsean honako honi buruzkoak dira: plantilla organikoak ez ditu jasotzen lanpostu bakoitzari esleitutako lansarien osagarri guztiak, ez eta araudian aurreikusita ez dauden baina hitzarmen indardunetan babestuta dauden osagarri batzuk ere.

b) 45.500 euro egiten duten diru-laguntzak aztertu ditugu. Horietan, formazko akats batzuk aurkitu ditugu.

c) Kontratazio administratiboa aztertzerakoan, ikusi dugu kasuko kontratazio-espeditentea dela-eta izapidetu gabeko gastu batzuk badaudela, 147.926 eurokoak.

Egoera hauek direla eta Udaleko kontu-hartzaileak eragozpen-txostenak egin izan ditu.

Iritzia

Gure iritziz, "Iritziaren oinarria, salbuespen batzuekin" paragrafoan azaldutako ez-betetzen eraginarengatik ez bada, Udalaren 2016ko ekitaldiko jarduerak, finantza-eragiketak eta sozietatearen egoera-orri finantzarioetan azaldutako informazioa bat datoz, garrantzizko alderdi guztietan, aplikatzekoak diren arauekin.

III. UDALAREN 2016ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren 2016ko egoera-orri bateratu garrantzitsuenak jasotzen dira (Udala eta erakunde autonomoa):

III.1. 2016ko AURREKONTU BATERATUAREN BETEARAZPENAREN EGOERA-ORRIA**Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera**

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Betetakoaren ehunekoa	Ordainketak	Ordainketak (%)	Ordaintzeko dagoena
1. Langile-gastuak	3.706.113	0	3.706.113	3.668.607	99	3.622.290	99	46.318
2. Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	2.283.541	17.790	2.301.331	2.186.899	95	1.948.356	89	238.543
3. Gastu finantzarioak	54.291	-7.260	47.031	21.599	46	21.599	100	0
4. Transferentzia arruntak	117.100	43.086	160.186	151.115	94	127.281	84	23.834
6. Inbertsio errealak	193.650	752.970	946.620	427.307	45	388.628	91	38.678
7. Kapital-transferentziak	3.000	0	3.000	2.353	78	2.353	100	0
9. Finantza-pasiboak	422.702	0	422.702	422.701	100	422.701	100	0
Guztira	6.780.397	806.586	7.586.983	6.880.582	91	6.533.208	95	347.374

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Kobrantzak	Kobrantzak (%)	Kobratzeko dagoena
1. Zuzeneko zergak	1.980.084	0	1.980.084	2.173.710	110	1.968.769	91	204.491
2. Zeharkako zergak	31.000	0	31.000	85.872	277	51.582	60	34.290
3. Tasak eta bestelako	1.470.732	0	1.470.732	1.691.207	115	1.589.324	94	101.883
4. Transferentzia arruntak	3.125.065	56.826	3.181.891	3.270.820	103	3.090.425	94	180.395
5. Ondarezko diruak	82.796	0	82.796	93.173	113	87.446	94	5.727
7. Kapital-...	90.720	14.030	104.750	10.848	10	10.848	100	0
8. Finantza-aktiboak	0	735.730	735.730	0	0	0	0	0
Guztira	6.780.397	806.586	7.586.983	7.325.630	97	6.798.393	93	527.236

III.2. 2016ko AURREKONTU-EMAITZA BATERATUA

Kontzeptua	2015	2016
+ Aitortutako eskubideak	7.071.585	7.325.630
- Aitortutako betebeharrak	6.833.474	6.880.582
Aurrekontu-emaiza	238.111	445.048
Doikuntzak	0	0
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	3.700	7.455
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	190.781	3.600
+ Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako gastuak	187.252	236.808
Aurrekontu-emaiza doituia	612.444	678.001

III.3. DIRUZAINZAKO GERAKIN BATERATUAREN EGOERA-ORRIA 2016ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2015	2016
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	650.746	706.539
(+) Diru-sarrerak: Aurtengo ekitaldia	537.650	527.236
(+) Diru-sarrerak: Itxitako ekitaldiak	1.614.016	1.483.860
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	8.878	8.616
(+) Ordainketen itzulketak	16	16
(-) Bilketa zaileko eskubideak	-1.509.814	-1.323.199
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	716.489	738.959
(+) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	423.315	347.374
(+) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	97.261	183.142
(+) Diru-sarreraren itzulketak	0	969
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	195.913	207.474
(+) Diruzaintzako funts likidoak	2.906.639	3.453.560
Diruzaintzako gerakina, guztira	2.840.896	3.421.140
Diruzaintzako gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	3.700	0
Baliabide atxikiaren diruzaintza-gerakina	244.126	251.581
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	2.593.070	3.169.559

III.4. 2016ko ABENDUAREN 31ko BALANTZE-EGOERA BATERATUA

Aktiboa

Deskribapena	2015	2016
A Ibilgetua	30.820.347	31.247.653
1 Ibilgetu materiala	29.493.236	29.613.092
2 Ibilgetu ez-materiala	631.274	648.214
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	403.353	674.106
4 Herri-ondasunak	289.479	309.236
5 Finantza-ibilgetua	3.005	3.005
B Zenbait ekitalditan banatu beharreko gastuak	397	397
6 Deuseztatu beharreko gastuak	397	397
C Zirkulatuzailea	5.067.199	5.483.298
8 Zordunak	2.160.560	2.029.738
9 Finantza-kontuak	2.906.639	3.453.560
Aktiboa, guztira	35.887.943	36.731.348

Pasiboa

Deskribapena	2015	2016
A Funts berekiak	29.989.136	31.232.772
1 Ondarea eta erreserbak	10.171.355	11.267.492
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	995.790	1.232.788
3 Kapitaleko diru-laguntzak	18.721.644	18.732.492
B Epe luzeko zorrak	5.182.317	4.759.616
4 Jasotako maileguak	5.182.317	4.759.616
D Epe laburreko hartzekodunak	716.490	738.960
6 Aitortutako betebeharreratiko hartzekodunak	520.577	530.517
7 Administrazio publikoak	84.778	94.171
8 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	111.134	113.302
9 Aplikatzeko dauden kontu-sailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	0	970
Pasiboa eta garbia, guztira	35.887.943	36.731.348

III.5. 2016KO EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZEN KONTU BATERATUA

Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor	2015	2016	Hartzeko	2015	2016
61 Langile-gastuak	3.503.123	3.674.101	70 Salmentak	1.213.832	1.531.741
62 Finantza-gastuak	47.203	21.599	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	343.901	172.836
63 Tributuak	0	100	72 Produkzioari eta inportazioari lotu- tako tributuak	1.642.982	1.722.275
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpoko zerbitzuak	2.099.380	2.181.306	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	418.538	417.242
67 Transferentzia arruntak	202.259	151.115	75 Ustiapenerako diru-laguntzak	69.346	0
68 Kapital-transferentziak	16.722	2.353	76 Transferentzia arruntak	3.079.488	3.270.820
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	1.008.526	1.284.208	77 Kapitalaren gaineko zergak	98.407	120.066
			78 Bestelako diru-sarrerak	10.719	79.802
Guztira	6.877.213	7.314.782		6.877.213	7.314.782

Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2015	2016	Deskribapena	2015	2016
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldageta (saldo zorduna)	15.077	51.420	80 Ekitaldiko emaitza arruntak (Saldo hartzekoduna)	1.008.526	1.284.208
89 Etekin garbia guztira (Saldo hartzekoduna)	995.790	1.232.788	82 Ohiz kanpoko emaitzak (saldo hartzekoduna)	2.341	0
Guztira	1.010.867	1.284.208	Guztira	1.010.867	1.284.208

IV. IRUZKINAK, OHARRAK ETA GOMENDIOAK

Egindako fiskalizazioaren emaitza gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, bai eta Ganbera honen ustez txostenaren hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitekeen informazio gehigarri bat ere. Halaber, jasotzen ditu Ganbera honen ustez Udalaren kudeaketa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak.

Orobat, fiskalizazio-txostenaren gaineko iritziaren salbuespenei buruzko informazio xehea gehitu da.

IV.1. UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2016ko ABENDUAREN 31n

Udalaren hasierako aurrekontu bateratuak 6,78 milioi euroko gastu eta diru-sarrerak dauzka; zenbateko hori ehuneko 12 –hau da, 0,81 milioi euro– handitu da aurrekontu-aldaketen bitartez: Horrenbestez, behin betiko aurreikuspenak 7,59 milioiokoak dira. Aldaketa horiek eragina dute batez ere diru-sarreraren finantza-aktiboen kapituluan eta gastuen inbertsio errealeen kapituluan.

Aitortutako betebeharrak 6,88 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 91ko betetze-maila izan dute. Aitortutako eskubideek 7,33 milioi euro egiten dute, eta betearazte-maila ehuneko 97 da.

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu den Udalak gastatutako 100 eurotik bakoitza:

Gastuaren izaera		Finantzabidea	
Langileak	53	Tributu bidezko diru-sarrerak	54
Bestelako gastu arruntak	35	Transferentziak	45
Inbertsioak eta kapital-transferentziak	6	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	1
Finantza-zama	6	Zorduntzea	0
	100		100

Hau da, funtzionamendu-gastuek guztizko gastuaren ehuneko 88 azaltzen dute eta finantza-zamak (interesak gehi amortizazioa), berriz, ehuneko sei. Diru-sarreretan, honako hauek dira iturri nagusia: tributu-izaerakoak, ehuneko 54, eta transferentzietakoak, ehuneko 45.

Hona Udalaren 2016rako aurrekontuaren betearazpenari buruzko datu ekonomiko bateratuak eta 2015ekoarekiko alderaketa:

Adierazleak eta magnitudeak	2015 ⁽¹⁾	2016	Aldea (%) 2016/2015
Aitortutako betebeharrak, guztira	6.833.434	6.880.582	1
Aitortutako eskubideak, guztira	7.081.733	7.325.630	3
Gastuen betetzea (%)	94	91	
Diru-sarrerren betetzea (%)	98	97	
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	5.847.835	6.028.221	3
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	5.800.633	6.006.622	4
Kapital-gastuak (6. eta 7. kapituluak)	562.898	429.660	-24
Finantza-eragiketen gastuak (8. eta 9. kapituluak)	422.701	422.701	0
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	6.988.426	7.314.782	5
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	3.765.390	3.950.789	5
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	93.309	10.848	-88
Tributu bidezko diru-sarrerak gastu arrunten gainean (%)	64	66	
Gastu arrunta biztanleko	756	789	4
Biztanle bakoitzeko kapital-gastua	73	56	-23
Tributu bidezko diru-sarrerak biztanleko	486	517	6
Diru-laguntzen menpekotasuna (%)	45	45	
Aurrezki gordina	1.187.793	1.308.160	10
Finantza-zama	469.904	444.300	-5
Aurrezki garbia	717.889	863.860	20
Aurrekontu-emaizta doitua	612.444	678.001	11
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	671.002	867.749	29
Diruzaintza-gerakina, guztira	2.840.896	3.421.140	20
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	2.593.070	3.169.559	22
Finantza-zamaren adierazlea ⁽²⁾	7	6	
Aurrezki gordina / Diru-sarrerak arruntak (%) ⁽²⁾	17	18	
Zorpetze-ahalmena (%)	10	12	
Zor bizia	5.182.317	4.759.616	-8
Zorpetze-maila ⁽²⁾	74	65	
Zor bizia biztanleko	670	623	-7

⁽¹⁾ Auditatu gabeko ekitaldia.

⁽²⁾ Rationen izendapen berriak, Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiak sartutakoak.

2016an, Udalak eta haren menpeko enteak ehuneko bat gehiago gastatu dute; diru-sarrerak, berriz, aurreko ekitaldikoak baino ehuneko hiru handiagoak izan ditu.

Gastu arruntek ehuneko hiru egin dute gora; kapitaleko gastuek, aldiz, ehuneko 24ko jaitsiera izan dute. Diru-sarrerei dagokienez, haien igoeraren arrazoia da diru-sarrera arruntek ehuneko bost egin dutela gora.

2016an, diru-sarrera arruntak gastu arruntak baino 1,14 milioi gehiago dira.

Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa 0,87 milioi eurokoa da, eta ehuneko 31 egin du gora 2015eko ekitaldikoarekiko. Aurrekontu-emaizta doitua 0,68 milioi eurokoa da, aurreko ekitaldikoak baino ehuneko 11 handiagoa.

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinak ere nabarmen egin du gora: 2,6 milioi eurotik 3,17 milioi eurora. Nabarmendu behar dugu aurrekontuko egoera-orri horren barruan –bai eta egoera-balantzearen zirkulatuazalean ere– “funts likidoak” sartzen direla; hain zuzen ere kontabilitate-araudi indardunaren arabera, Udalak itundutako kreditu-polizetan eskuragarri daudenak. Hartara 2016an, funts likido horietan guztira itundutako kreditu batetik heldu den 1,21 milioiko kopurua sartu da, horretatik oraindik ere ez baita inongo zenbatekorik erabili.

2016ko aurrezki gordina, 1,31 milioikoa, ehuneko 10 handitu da; finantza-zama, berriz, ehuneko bost gutxitu da. Aurrezki garbia 0,72 milioitik 0,86 milioira pasatu da.

Finantza-zamaren adierazlea ehuneko seikoa da 2016an (2015ean, berriz, ehuneko zazpi izan zen), eta aurrezki gordinak diru-sarrera arrunten ehuneko 18 egiten du (ehuneko 17 izan zen 2015ean).

Zor bizia ehuneko zortzi jaitsi da, eta 2016an 4,8 milioikoa izatera iritsi da; halaber, zorpetze mailak behera egin du, ehuneko 74tik ehuneko 65era. Biztanle bakoitzeko zorra 623 eurokoa da 2016an (670 euro 2015ean).

Horrenbestez, eta amaierako laburpen gisa, 2016ko abenduaren 31n Corellako Udalak finantza-egoera bateratu kaudimenduna du, 0,86 milioiko aurrezki garbiarekin; gastu orokorretarako diruzaintzako garakina, berriz, 3,17 milioi eurokoa da, eta zor biziaren jaitsiera 0,4 milioikoa.

Zahar-etxearen 2016ko abenduaren 31ko finantza-egoera dela eta, honako hau esan behar dugu:

- 2016ko ekitaldian, 9.864 euroko aurrekontu-emaizta negatiboa du, 7.312 euroko aurrezki garbi negatiboa, eta gastu orokorretarako 68.147 euroko diruzaintzako garakin positiboa, zeina ehuneko 29 jaitsi baita aurreko ekitalditik.

- Udalaren 2016ko ekarpena 60.000 eurokoa da; 2015ean, berriz, 180.000 eurokoa izan zen.

- Udalaren kontu-hartzaitzak zahar-etxeari buruz egin duen oroitidazki ekonomikoan aipatzen den bezala, eraikina eta haren instalazioak zaharrak dira; horrenbestez, datozen urteetan elementuak ordeztzeko eta inbertsioak egiteko beharrak handitu egingen dira.

Hori guztia dela eta, kontu-hartzaitzak gomendatzen du "gastu arrunta kontrolatzea, zahar-etxearen okupazio-mailari ahal den guztian doitzeko; eta diru-sarrereri dagokienez, zahar-etxeak bere burua finantzatu ahal izateko, egoiliarren kuotak handitu beharko lirateke.

IV.2. AURREKONTU-EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA

Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoari jarraituz, Udalak honako arau fiskal hauek bete behar ditu funtsean:

- Aurrekontu-egonkortasuna, edo ekitaldiko oreka/finantzaketa-gaitasuna, kontabilitate nazionalako terminoetan neurtua.

- Gastu-arauak –hau da, Udalaren 2016ko gastu konputagarriaren eta 2015eko gastuaren artean dagoen aldeak– ezin du gainditu BPGaren hazkundearen erreferentziako tasa. Tasa hori ehuneko 1,8an ezarri zen ekitaldi horretarako.

- Zor publikoaren iraunkortasunak esan nahi du Udalaren zorrak, kontabilitate nazionalako terminoetan, ezin duela gainditu diru-sarrera arrunten ehuneko 110a.

- Merkataritza-zorraren iraunkortasunak esan nahi du hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeak ezin duela gainditu, orokorrean, 30 eguneko muga.

Egindako azterketatik honako hauek azpimarratuko ditugu:

- Bateratzearen perimetroa, kontabilitate nazionalako eraginetarako, Udalak eta haren erakunde autonomoak osatzen dute.

- Aurrekontu-egonkortasunaren araua

Udalak 2016an arau hori bete du, zeren eta gaitasuna lortu baitu 0,77 milioi finantzatzeko, ondoren azaltzen den bezala:

Kontzeptua	2016
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	867.749
Zalantzako diru-bilketarengatik doikuntza	-100.396
Sortutako interesengatik doikuntza	1.179
Finantzaketa-ahalmena	768.532

- **Gastuaren araua**

2016ko ekitaldiko gastu konputagarria 2015eko ekitaldikoa baino 89.543 euro handiagoa da; horrenbestez, arau hori ez da betetzen.

Kontzeptua	2015	2016
Gastua (1. kapitulutik 7.era)	6.410.773	6.457.881
Zorpetze-interesengatiko doikuntza	-47.203	-21.599
SEC dela-eta egindako doikuntzak	-347.124	-342.698
Funts finalistekin finantzatutako gastuengatiko doikuntzak	-888.344	-783.632
Oinarri-urtearen gastu konputagarria	5.128.102	5.309.952
BPGaren erreferenziako tasa	1.018	
2016rako gehieneko gastu konputagarria	5.220.409	

Udalak, horrenbestez, ez du gastu-araua bete, zeren eta 2016ko ekitaldirako gastu konputagarria ehuneko 1,8 handiagoa izan baita aurreko urteko gastu konputagarria baino.

Ez-betetze hori dela eta, 2017ko ekainean, Udalaren Osoko Bilkurak, 2/2012 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, behar diren plan ekonomiko-finantzarioa onetsi du, ezarritako helburuak betetzeko modua emanen diona.

- **Finantza-iraunkortasunaren araua**

2016ko abenduaren 31ko zor bizia 4,8 milioi da, eta zenbateko horrek 2016ko ekitaldiko diru-sarrerara arrunten ehuneko 65 egiten du; beraz, portzentajea arau indardunak ezartzen duen ehuneko 110eko mugatik behera dago.

- **Hornitzaileei ordaintzeko epea**

Adierazle horren batez besteko balioa honako hau izan da 2016an:

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea	2016
Lehenengo hiruhilekoa	-15,3
Bigarren hiruhilekoa	-15,6
Hirugarren hiruhilekoa	-15,5
Laugarren hiruhilekoa	-15,1

Horrenbestez, Udalak bete egin du printzipio hori, zeren eta ordaintzeko epea txikiagoa baita araudi indardunak merkataritza-eragiketarako ezarritakoa baino (30 egun naturaleko epea).

IV.3. ALDERDI OROKORRAK

- 2016ko ekitaldirako aurrekontua eta betearaztearen oinarriak Udalaren 2015eko abenduaren 29ko Osoko Bilkuran onetsi ziren. Behin jendaurrean jartzeko izapidea eginda, 2016ko otsailaren 11n eman zitzaion behin betiko onespina, eta NAO-n 2016ko otsailaren 19an argitaratzeaz batera hartu zuen indarra. Zahar-etxearen aurrekontua jasotzen duen espedienteak ez dauka araudi indardunean ezartzen den dokumentazio guztia (azalpeneko oroitidazkia, langile-gastuak...).

- 2016ko ekitaldian onetsitako aurrekontu-aldaketen lagin bat aztertu dugu, eta ondorioztatu dugu ezen, oro har, legedi indardunean ezarritakoari jarraituz onesten direla; horietako bat, 62.300 eurokoa, salbuespena da, gastua betearazi ondoren onetsi baita.

- Ondasunen inbentarioa 1991koa da, eta gaur arte ez da gaurkotze lanik egin.

- Kontu orokorrak Udalaren eta haren erakunde autonomoaren egoera-orri bateratua jasotzen du, aurrekontu-informazioari eta gainerako egoera-orri finantzarioei dagokienez; salbuespena oroitidazki ekonomikoa da, zeina entitatez entitate aurkezten baita.

- Gorabeherak. Udalak 2016ko ekitaldi honetan 270.753 euro ordaindu ditu bost partikularrei egindako desjabetzeen kontzeptuan; 2016ko itxieran, desjabetutako beste hiru partikular ordain-

datuak berdinak ziren kalte-ordainen eskaerak formalizatzeko moduan zeuden; kalte-ordain horiek, guztira, 137.248 eurokoak izan litezke. Udalaren 2016ko oroitidazkian egoera horri buruz informatzen da.

• Udalaren zor biziaren muga-eguneratzeen egutegia, banku-entitateekikoa, honako hau da 2016ko abenduaren 31n:

Ekitaldia	Amortizazioa	Ehunekoa	Metatuaren %
2017	422.701	9	9
2018	422.701	9	18
2019	422.701	9	27
2020	422.701	9	36
2021	422.701	9	44
2022	422.701	9	53
2023	422.701	9	62
2024	307.601	6	69
2025	307.601	6	75
2026	307.601	6	82
2027	307.601	6	88
2028	255.101	5	93
2029	202.601	4	98
2030	112.603	2	100
Guztira	4.759.616	100	

Ikusten da maileguak amortizatzeko kuotak nahiko uniformeak izan direla ekitaldietan zehar.

• Udalak ez du zehazturik zahar-etxean egiten diren jardueren gaineko kontrol- eta gainbegiratze-sistematik.

Gure gomendioak:

• *Udalaren aurrekontua behin betiko onestea eta argitaratzea legedi indardunean aurreikusitako epean, eta aurrekontuaren espedientean eskatutako dokumentu guztiak sartzeari, bereziki erakunde autonomoari dagozkionak.*

• *Aurrekontu-aldaketak kasu guztietan gastua betearazi aurretik izapidetu eta onestea.*

• *Udal inbentarioa gaurkotzea, eta altak eta bajak kontrolatzeko eta jarraitzeko sistema bat ezartzea, haren etengabeko gaurkotzea eta kontabilitatean jasotako ibilgetuarekin duen lotura errazteko.*

• *Oroitidazki ekonomiko bateratua egitea.*

• *Zahar-etxearen kudeaketa kontrolatzeko eta gainbegiratzeko sistemak ezartzea.*

IV.4. LANGILEAK

Langile-gastuek 3,67 milioi euro egin zuten, eta betetze-maila ehuneko 99koa izan da. 2016ko ekitaldian sortutako gastu guztien ehuneko 53 dira. 2015eko ekitaldikoaren aldean, gastu hori ehuneko bost igo da.

Hona kontuak banakatuta, 2015ekoekin alderatuta:

Langile-gastuak	Aitortutako betebeharrak		Ehuneko Aldea
	2015	2016	
Goi-karguak	54.930	51.708	-6
Funtzionarioak	899.419	929.857	3
Lan-kontratudun langileak	1.230.362	1.335.770	9
Gizarte-zamak	1.297.658	1.351.272	4
1. kapitulua, guztira	3.482.369	3.668.607	5

Gastuaren ehuneko bosteko igoeraren arrazoiak dira funtsean ordainsariak ehuneko bat handitu direla, herritarren segurtasunaren arloko langileen kontratazioak handitu direla eta Montepi-oaren ekarpena handitu dela.

2016ko langile-gastuetatik ehuneko 80 Udalari dagokio eta ehuneko 20, berriz, zahar-etxeari.

Udalaren Osoko Bilkurak 2016ko otsailaren 12an onetsi zuen behin betiko 2016ko plantilla organikoa, eta 2016ko maiatzaren 11ko NAO n argitaratu zen.

Plantilla organikoari dagokionez, honako hau nabarmendu behar dugu:

- Onespena araudi indardunean ezarritako epeaz kanpo eman zitaion.
- Zahar-etxeari dagokion atalean, plantilla organikoak ez ditu aipatzen lanpostuei esleitutako lansarien osagarriak.
- Hona osaera:

Lanpostu-kopurua	Lanpostuak	Aktiboa	Lanpostu hutsak	Betetako lanpostu hutsak
A. Udala	47	30	17	15
Funtzionarioak	29	24	5	3
Lan-kontratudun finkoak	17	5	12	12
Izendapen askea	1	1	-	-
B. San José zaharrentzako egoitza	23	1	22	22
Funtzionarioak	0	-	-	0
Lan-kontratudun finkoak	23	1	22	22
Guztira	70	31	39	37

Hau da, plantilla organikoak 70 lanpostu dauzka; horietatik 39 lanpostu daude hutsik, hau da, plantillaren ehuneko 56. Lanpostu huts horiek ia guztiak beteta daude.

2016ko abenduaren 31n, 91 pertsonak lan egiten dute guztira Udalean eta haren erakunde autonomoan; hona xehetasunak:

Langileak, 2016-12-31n	Udala	Erakunde autonomoa	Guztira
Udaleko batzarkideak	1	0	1
Behin-behineko langileak - izendapen askekoak	1	0	1
Funtzionarioak	23	0	23
Lan-kontratudun finkoak	5	1	6
Behin-behineko lan-kontratudunak	18	22	40
Aldi baterako lan-kontratudunak	12	7	19
Zerbitzu-eginkizunak, beste administrazio ba-	1	0	1
Guztira	61	30	91

Aipatutako langileak honako arloei daude atxikiak:

Arloak	Langile kopurua
Alkatea	1
Idazkaritza	1
Zerbitzu orokorrak	7
Kultura	1
Kirola	1
Hirigintza zerbitzuak	1
Askotariko zerbitzuak	12
Segurtasuna eta babesa	14
Ikastetxea	3
Gizarte zerbitzuak	11
Giza baliabideak	1
Postaria	1
Gizarte enplegu babestua	7
Egoitza	30
Guztira	91

Aldi baterako langileei dagokienez, haiek funtsean udalaren beraren zerrendei edo enplegu-bulego publikoen zerrendei jarraituz sartzen dira Udaleko 14 langilek 2010eko ekitaldia baino lehenagoko laneko lotura bat dute; zahar-etxeko langileetatik, berriz, 20 dira 2010eko ekitaldia baino lehenagoko laneko lotura dutenak. Udalaren kasuan, langile horietatik gutxienez ere bostek ez dute plantilla organikoko lanposturik betetzen.

2017an, laneko ikuskatze baten ondorioz, Udaleko hiru langile, obra-kontratuaren bidezko lotura zutenak, lan-kontratu mugagabe ez-finkoa duten langile bilakatu dira.

Aldi baterako kontratazioen lagin bat berrikusi dugu, eta ondorioztatu dugu egoki izapidetu zirela; halere, kasu guztietan ez da justifikatu aipatutako kontratazioak aparteko izaerarekin egin direla, beharrian urgente eta geroraezinak estaltzeko, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak ezartzen duen moduan.

Langileen nominen lagin bat aztertuta, ondorioztatzen da ezen, oro har, gastu horiek zuzen kontabilizatuta daudela, ordainsariak betetako lanposturako erabakitakoak direla eta egindako atxikipenak zuzenak direla; honako hauek dira salbuespenak:

- Udaleko langileek absentismo-osagarri bat kobratzen dute, ehuneko hirukoa, langile funtzionarioen eta lan-kontratupeko langileen hitzarmen indardunetan arautu bezala. Hilero kobratzen da hori, eta soilik langileak aldi horretan aldi baterako ezintasun-bajarik izan ez badu. Osagarri hori ez dago jasota langileen ordainsariei buruzko araudi indardunean.

- Udaleko zerbitzu anitzetako langileek lanaldiaren luzapeneko osagarria kobratzen dute, ehuneko 10ekoa; osagarri hori onetsi zen langile horiei kalte-ordain bat emateko, hain zuzen ere langile horien urteko lanorduen kopurua handiagoa delako funtzio publikoko langileentzat arau ezarritakoa baino. Osagarri horretaz gainera, noizbehinka, aparteko orduak kobratzen dituzte, alkatetzak ebazpen bidez horiei onespena emanda. Udalaren kontu-hartzaitzak eragozpen-txosten bat egin du horri buruz.

- Egoitzako langileen lansari-osagarriak, lehen aipatu dugun bezala, ez daude plantilla organikoan.

2016an, plantilla organikoarekin batera, 31 lanpostuko lan-eskaintza publiko bat onetsi zen; azkenean, ordea, ez da deialdirik egin.

Gure gomendioak:

- *Udalaren plantilla organikoa onestea legez ezarritako epeetan.*

- *Plantilla organikoan egiturazko izaera duten lanpostu guztiak sartzeara.*
- *Plantilla organikoko lanpostu guztietan haiei esleitutako lansari-osagarriak jasotzea.*
- *Lansarien osagarriak egokitzea araudi indardunean ezarritakoari.*
- *Aldi baterako lan-kontratupeko langileen egoera aztertu, berrikusi eta erregularizatzea, araudiaren egungo egoeran.*
- *Justifikatzea kontratazio berriak aparteko kasuetan egin daitezela eta, betiere, beharrian urgente eta geroraezinak betetzeko.*

IV.5. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastu bateratuak 2,19 milioikoak izan ziren; betetze-maila aurreikusitako kredituaren ehuneko 95ekoa izan da, eta ekitaldiko guztizko gastuaren ehuneko 32 egiten du. 2015. urtearen aldean, zenbatekoak ehuneko hiru egin du gora.

Honako hauek izan dira kapitulu honetan egotzitako gastu nagusiak eta haien eta aurreko ekitaldikoaren arteko alderaketa

Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	Aitortutako betebeharrak		Ehunekoa Aldea
	2015	2016	
Hornidurak	496.365	457.911	-8
Garbitasuna	385.762	401.696	4
Mantentze-lanak	274.472	293.086	7
Herriko festak	158.071	171.833	9
Kultur eta kirol jarduerak	151.540	162.541	7
Elikadura	91.058	93.083	2
Musika eskola	80.681	80.325	0
Besterik	478.056	526.424	10
2. kapitulua, guztira	2.116.005	2.186.899	3

2016an kapitulu horretan izan diren gastuetatik ehuneko 84 Udalari dagozkio eta ehuneko 16, berriz, zahar-etxeari.

2016ko ekitaldian esleitutako honako kontratazio-espeditenteak aztertu ditugu:

Deskribapena	Kontratu-mota	Adjudikazio-prozedura	Zenbatetsitako balioa/. lizitazioa (BEZik gabe)	Eskaintzak egin dituztenak	Adjudikazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Gastua 2016an (BEZik gabe)
José Luis Arrese ikastetxe publikoaren garbiketa	Laguntza	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti.	204.958 ⁽¹⁾	2	45.375	43.988
Ibilgailuak eramatea	Laguntza	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti.	15.000	1	9.000 euro finko + 82,6 euro zerbitzu bakoitzeko +41,3 euro zerbitzu erdi bakoitzeko	11.210
Udal igerilekue-tako askotariko zerbitzuak	Laguntza	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti.	206.000 ⁽¹⁾	2	50.740	29.441

⁽¹⁾ Lau urterako kalkulaturako zenbatekoa

Haiek berrikusita, ondorioztatzen da ezen, oro har, espeditente horiek araudi indardunean ezarritakoari jarraituz izapidetu direla.

Halaber, kapitulu honetako gastuen lagin bat berrikusi da –aseguru-primak, gastu juridikoak eta kultur eta kirol jardueretakoak–, eta egiaztatu da haiek beren fakturekin justifikatuta daudela, zuzen kontabilizatu direla eta, oro har, araudi indarduna errespetatu dela.

Hala eta guztiz ere, ikusi da zenbateko aipagarria duten honako zerbitzu hauetako kontratuak ez direla egin:

Deskribapena	Gastuaren zenbatekoa 2016an (BEZik gabe)
Elikadura - Zahar-etxea	76.421
Garbiketa - Zahar-etxea	26.146
Jaietako orkestrak - Udala	18.634
Jaietako musika-ikuskizunak - Udala	11.700
Legelari-laguntza, desjabetzeen gaian - Udala	7.623
Katastroaren mantentzea - Udala	7.402
Guztira	147.926

Horri dagokionez, 2016ko ekitaldian zehar, Udaleko kontu-hartzaitzak eragozpen-txosten batzuk egin izan ditu, aurreko zerbitzuak, beren zenbatekoagatik, kontratazio-prozedura egokiak erabiliz adjudikatu beharrekoak zirelako. Gure iritziz, aurreko gastuak aitortu eta ordaintzeko, espediente bat izapidetu beharko litzateke, eta hartan, kontratuko irregulartasuna aitortuta, hura ordaindu beharko litzateke, Udalaren aberaste bidegabea saihesteko, , baldin eta ez baditu ordaintzen egiazki eginda dauden baina lege-euskarririk ez duten gastu batzuk.

Udalak ez du kontrol-sistematik ezarri hirugarrenei kontratatutako zerbitzuen ematea zuzen betetzen dela ebaluatu ahal izateko.

Gure gomendioak:

- *Hirugarren batekin egindako kontratuen indarraldia gehiago kontrolatzea eta dagokion lizitazio-prozeduraren hasiera behar adinako denboraz planifikatzea.*
- *Behar diren kontratazio-espedienteak izapidetzea errepikakorrak izateagatik eta zenbatekoagatik araudiaren arabera hala jokatu behar den zerbitzuen kasuan.*
- *Kontrol-mekanismo bat garatzea, adjudikazio-hartzaileek zerbitzuak zuzen betetzen dituztela ebaluatu ahal izateko.*

IV.6. TRANSFERENTZIA ARRUNTENGATIKO GASTUAK ETA KAPITAL- TRANSFERENTZI-ENGATIKO GASTUAK

Izaera horretako gastuek 153.468 euro egin dute 2016an, eta ehuneko 94ko betetze-maila izan dute. Guztizko gastuaren ehuneko bi dira. Gastu horiek ehuneko 30 jaitsi dira 2015eko ekitaldikoekin alderatuta.

Honako hauek dira 2016ko gastuaren xehetasunak eta 2015eko ekitaldiko gastuekiko alderaketa:

Transferentzien ondoriozko gastuak	Aitortutako betebeharrak		Aldearen ehunekoa 2016/2015
	2015	2016	
Toki entitatearen enpresei (Animsa)	44.471	-	-100
Toki entitateei	10.520	20.575	96
Enpresa pribatuei	12.280	9.280	-24
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	134.988	121.260	-10
Transferentzia arruntak guztira	202.259	151.115	-25
Animsari	16.438	-	-100
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	284	2.353	729
Kapital-transferentziak guztira	16.722	2.353	-86
Transf., guztira	218.981	153.468	-30

Transferentziengatiko gastu guztiak Udalari dagozkie.

Transferentzia nagusiak bideratu dira larrialdi sozialeko laguntzak finantzatzera eta Udaleko kirol-klubak eta kirol- eta kultura-elkarteei diru-laguntzak ematera.

2016ko ekitaldian, Animsa sozietate publikoak Udalari ematen dion zerbitzu informatikoaren gastua ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuetako 2. kapituluari egotzi zaizkie.

Udalak ez du diru-laguntzei buruzko plan estrategikorik, ez eta diru-laguntzei buruzko ordenantza orokorrik ere.

Familiei eta kirol-klubei eta kirol- eta kultura-elkarteei emandako diru-laguntzak berrikusi dira. Lehenengoari dagokionez, ondorioztatzen dugu ezen, oro har, diru-laguntzak aplikatzekoa den araudiaren arabera eman, justifikatu eta erregistratu direla. Bigarrenari dagokionez, honako gorabehera hauek aurkitu ditugu:

- Udalak kirol- eta kultura-elkarte eta kolektiboentzako laguntzak emateko oinarriak onetsi eta argitaratu ditu eskaerak baloratzeko jarraitu beharreko irizpideak kontuan hartuz. Hala eta guztiz ere, praktikan, kolektibo guztiei ematen zaizkie laguntzak aurreko ekitaldietan eman izan zaizkien zenbatekoei jarraituz.

- Espedienteetan ez dago beti jasota txosten teknikorik edo kontu-hartzailetzakorik dagoenik, zeinetan onuradunek aurkeztutako justifikazioei buruz egindako egiaztapenak jasotzen diren eta zeinetan seinalatzen diren, kasua bada, araudiaren betetzeak edo ez-betetzeak eta diru-laguntzaren behin betiko zenbatekoa finkatzeko gastu hautagarriaren bolumena.

- Guztira lau elkarteri eman zaizkie zuzeneko laguntzak, batera 40.000 euro egiten dutenak: Udalaren musika bandari, 30.000 euroko laguntza izendunarekin, eta hiru peñari, 10.000 euroko laguntza izendunarekin. Elkarte horiekin ez da emandako diru-laguntza arautzeko hitzarmenik sinatu, egin beharreko jarduerak eta haiek justifikatzeko modua arautzen dituenik; halere, Udalak jasota dauka lagundutako jarduerak egiazki egin direla. Diru-laguntza horiei buruz Udaleko Kontu-hartzailetzak eragozpen-txosten bat egin zuen. Udalak hasieran emandako laguntzaren zenbatekoa ordaindu zuen.

Gure gomendioak:

- *Diru-laguntzei buruzko plan estrategiko bat egitea.*
- *Diru-laguntzak emateko eta justifikatzeko prozedura orokorra arautzen dituen ordenantza orokor bat onartzea.*
- *Onetsitako oinarri arautzaileetan ezarritako irizpideak betetzea.*
- *Udalak onuradunei zuenean ematen dizkien diru-laguntzetarako kasuko hitzarmenak artikulatzea.*
- *Kirol- eta kultura-elkarteei emandako diru-laguntzei buruzko berrikuspen sistematikoa aplikatzea, segurtatze aldera haiek emateko, kudeatzeko eta justifikatzeko prozeduran araudi erregulatzailerak betetzen dela eta, kasua bada, haiek ordaindu egiten direla.*

IV.7. INBERTSIOAK

Inbertsioengatiko gastuak 427.307 eurokoak izan dira, eta betetze-maila ehuneko 45ekoa izan da. 2015arekin alderatuta, ehuneko 22 egin dute behera.

Honako hauek izan dira kapitulu honetan gastu aipagarrienak:

Deskribapena	Gastuaren zenbatekoa 2016an (BEZik gabe)
Nafarroako etorbideko lurren desjabetzea	270.753
Ikastetxeko leihoak	41.720
Udal-igerilekuetan egindako inbertsioa	24.362
Bestelako inbertsioak	63.301
Guztira	400.136

2016ko ekitaldi honetan ez da obra-kontraturik adjudikatu.

2016an kapitulu horretan izan diren gastuetatik ehuneko 95 Udalari dagozkio eta ehuneko bost, berriz, zahar-etxeari.

Desjabetzeengatiko gastua 2006ko ekitaldian zortzi jabetza egindako lursailen desjabetzeari dagokio; horiek direla eta, azkenean, 2016ko ekitaldian, Udalak akordioak sinatu ditu horietako bostekin, eta akordio horietan metro koadro bakoitzeko prezioa finkatu da. Gainerako hiru jabetzetatik bik 2017an eskari bat aurkeztu zuten, kalte-ordain bat ordain zekien gainerako jabetzei ordaindu zitzaizkien baldintza berdinetan, eta horietatik azkenak ez du gaur arte eskaera hori aurkeztu; hiru jabe horiek eskuratzeko eskubide izanen luketen kalte-ordaina, gainerakoekin ezarritako baldintzei eutsiz gero, 137.248 eurokoa izanen litzateke gehienez. Udalaren oroitidazkian egoera horri buruz informatzen da.

Ikastetxeko leihoetako obrei dagokienez –41.720 euroko zenbatekoa egiten dute–, ikusi da gastu horri dagokion lana hornitzaile berak baina zatika egin duela, eta ez dela dagokion lizitazio-prozedura egin, azkenean egindako gastuaren bolumena dela eta. Horri buruzko eragozpen-tosten bat badago, Udaleko Kontu-hartzaileak eginga.

Gomendatzen dugu behar diren kontratazio-espedituentzako izapidetzea, errepikakorrak izateagatik araudiaren arabera horrela jokatu behar den inbertsioen kasuan.

IV.8. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2016ko ekitaldiko kapitulu bakoitzarengatik aitortutako eskubideak eta haien eta aurreko ekitaldiko arteko alderaketa ondoko taula honetan adierazten dira:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak		Aldea, portzentajea 2016/2015
	2015	2016	
1. Zuzeneko zergak	2.130.006	2.173.710	2
2. Zeharkako zergak	35.354	85.872	143
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.600.030	1.691.207	6
4. Transferentzia arruntak	3.149.367	3.270.820	4
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	73.669	93.173	26
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	6.988.426	7.314.782	5
6. Inbertsioen besterentzea	85.907	0	-100
7. Kapital-transferentziak	7.400	10.848	47
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	93.307	10.848	-88
Diru-sarrerak, guztira	7.081.733	7.325.630	3

2016ko ekitaldian aitortutako eskubideak 7,33 milioioak izan dira; horietatik, 7,31 milioi diru-sarrera arruntei dagozkie eta 10.848 euro, berriz, kapitaleko diru-sarrerei. Diru-sarreraren aurrekontua betetzeko maila ehuneko 97koa izan da; beraz, handiagoa da kapitulu guztien –kapitaleko transferentzien kapituluak izan ezik– aurrekontuetan jasotakoa baino. 2015. urtearen aldean, diru-sarrerak ehuneko hiru egin dute gora.

2016ko diru-sarreraren guztizkotik, ehuneko 85 Udalari dagozkio eta ehuneko 15, berriz, zahar-etxeari.

2015ean bezala, 2016an Udalak ez du hirigintza-eragiketetatik heldutako diru-sarrera aipagarririk jaso. Ez du, ezta ere, finantza-zorpetze berririk itundu.

a) Zergen bidezko diru-sarrerak

Ondorengo taulan udal zerga bakoitzak aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da:

Zergak	Aitortutako eskubideak		Aldea, portzentajea 2016/2015
	2015	2016	
Lurraren kontribuzioa	1.351.597	1.366.899	1
Ibilgailuak	419.630	420.393	0
Lurren balio-gehikuntza	98.318	120.066	22
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	260.461	266.352	2
EIOZa	35.354	85.872	145
Guztira	2.165.360	2.259.582	5

Alde garrantzitsuenak gainbalioen gaineko zergaren eta EIOZaren likidazioan ikusten dira, zeren eta higiezinaren transmisioak gora egin baitu, eta obrak egiteko eskaeren espedienteen kopurua ere handiagoa izan baita, hurrenez hurren.

Udalak aplikatutako tasak hurrengo taulan ikus daitezke:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Landa-lurraren kontribuzioa	0,8	0,10 - 0,50
Lurraren kontribuzioa	0,39	
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,4	1 – 1,4
Lurren balio-gehikuntza		
Gaurkotzearen koefizientea	2,57 eta 3,02 bitarte	2,1 eta 3,6 bitarte
Zerga-tasa	16,26	8 eta 20 bitarte
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	4,67	2 - 5

Tasa horiek 2015eko tasen antzekoak dira.

Azken balorazio-ponentzia 2000n egin zen; gaur arte, ordea, ez dira balioak gaurkotzeko lanak hasi. Horrenbestez, Udalak hiri-lurraren kontribuzioari eta landa-lurraren kontribuzioari aplikatzen aplikatzeak zaizkien tasak bereizten jarraitzen du.

2017an ez da lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga kudeatzen ari, haren legezkotasunari buruz dagoen zalantza dela-eta eta haren araupetzean aldaketak eginen direlakoan. Udalak, gaur egun, 2016an igorritako gainbalioengatik erreklamazioak direla eta, 13.061 euro dauzka ebazteko.

Zergen bidezko diru-sarreraren aurrekontuko partiden lagin baten gainean azterketa egin ondoren, egiaztatu dugu ezen, oro har, egoki izapidetu, justifikatu eta kontabilizatu direla, honako salbuespen hauekin:

- Detektatu da udalerrian kokatutako fundazio bat badagoela hiri-lurraren kontribuzioa ordaintzetik salbuetsita dagoena; salbuespen hori dela eta, Nafarroako Gobernuak ez du itzulketarik egin, zeren eta uste baitu fundazio hori ez dagoela jasota 10/1996 Foru Legean fundazioetarako aurreikusitako zerga-araubidean. 2016ko ekitaldiko hiri-lurraren kontribuzioaren zenbatekotik sartu ez den kopuruak 4.019 euro egiten du. Horri buruzko eragozpen-txosten bat badago, Udaleko Kontu-hartzaileak egina.

Alegazioen fasean, gai hori dela eta, honako hau adierazi du alkateak: *“Aipatu beharra dago fundazio horren jabetzakoa den eraikinak San Miguel Erretirodunen Kluba eta zinema hartzen dituela, eta desgaitasun fisiko, psikikoa edo sentoriala duten pertsonak artatzen dituen Corellako elkarte batek kudeatzen dituela. Aurreikusita dago fundazioa martxo honetan deseginen dela eta Udalari higiezin hori doan lagako diola, aipatutako kolektiboa hartzen jarraitu ahal dadin”*.

- Udalaren arabera obra txikiak direnen kasuan –nahiz eta ordenantzak ez du zehazten zein den kalifikazio hori jasotzeko zenbatekoa–, EIOZaren likidazioa zergadunak aurkeztutako hasierako aurrekontuaren gainean egiten da, eta zerga ez zaio egokitzen obraren amaierako exekuzio errealari.

Gure gomendioak:

- *Balorazio-ponentzia gaurkotzea eta tasa bakarra onestea hiri-lurrerako eta landa-lurrerako.*
- *Zergak ordaintzetik salbuestea soilik legezko betekizunak betetzen ez dituzten zergadunak.*
- *EIOZa behin betiko likidatzea, obraren amaierako betetze errealaren arabera.*

b) Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk.

Ondoren 2016ko eta 2015eko tasen prezioen eta beste diru-sarrera batzuen bitarteko diru-sarreraren alderaketa bat erakusten dugu:

Tasen, prezio publikoen eta bestelako diru-sarreraren bidezko diru-sarrerak	Aitortutako eskubideak		Aldea, portzentajea 2016/2015
	2015	2016	
Zahar-etxeko kuoten bidezko diru-sarrerak	1.012.735	1.010.565	0
Kirol instalazioetako sarrerak eta abonamenduak	133.066	136.934	3
Aprobetxamendu bereziak	121.555	93.071	-23
Askotariko diru-sarrerak	3.044	60.755	1.896
Aparkalekuetako pasabideak	58.794	59.245	1
Musika eskola	48.670	43.945	-10
Kirol ikastaroetako inskripzioak	32.979	41.799	27
Kuoten bidezko bestelako diru-sarrerak	189.187	244.893	29
Guztira	1.600.030	1.691.207	6

Zahar-etxeke erabiltzaileen kuoten bidezko diru-sarrerak eta kirol instalazioetako sarrerengatiko eta abonamenduengatiko diru-sarrerak dira kontzeptu nagusiak, eta ia aldaketarik ez dute izan 2016an. Igoera justifikatuta dago, funtsean, berandutze-interesen ordainketarengatik eta legelarien lansariengatik, zeinak hirugarren batekin izandako gatazka bati baitagozkio. Udalaren alde ebatzi dira horiek.

Zahar-etxeke kuoten bidezko diru-sarreraren, kirol instalazioen sarrerarengatiko eta abonamenduengatiko diru-sarreraren eta pasabideengatiko diru-sarreraren lagin bat hartu da, haiek berrikus-teko. Ondorioa da haien izapidetzea, justifikazioa eta kontabilizazioa araudiaren arabera izandirela; halere, igerilekuetako diru-sarreretan akats txiki batzuk badaude zenbatekoa zehazte-rakoan.

Gomendatzen dugu kontrolak indartzea, erabiltzaileei, kasu guztietan, tarifa indardunak apli-katzeko.

c) Transferentzien bidezko diru-sarrerak

2016ko eta 2015eko transferentzien bidezko diru-sarrerak alderatuta, honako hau da emaitza:

Transferentzien bidezko diru-sarrerak	Aitortutako eskubideak		Aldea, portzen-tajea
	2015	2016	2016/2015
Toki ogasunetan parte hartzeko funtsa	2.231.616	2.274.017	2
Funtzionarioen montepioak	272.400	297.439	9
Gizarte zerbitzuak	174.238	191.777	10
Gizarte enplegu babestua	30.917	101.180	227
Udalbatzako kideen ordainsariak:	52.768	53.771	2
Larrialdi soziala	45.000	36.538	-19
Beste diru-laguntza batzuk	87.958	65.676	-25
<i>Subtotala (Nafarroako Gobernua)</i>	<i>2.894.897</i>	<i>3.020.398</i>	<i>4</i>
Estatuarenak	25.063	25.878	3
Toki entitateenak eta beste batzuenak	229.407	224.544	-2
<i>Beste hainbat entitate, honaino, guztira</i>	<i>254.470</i>	<i>250.422</i>	<i>-2</i>
4. kapitulua, transferentzia arruntak, guztira	3.149.367	3.270.820	4
Toki entitateenak eta beste batzuenak	7.402	10.848	47
7. kapitulua, kapital-transferentziak, guztira	7.402	10.848	47

Diru-sarreraren igoeraren arrazoia da, funtsean, Nafarroako Gobernutik jasotako diru-sarrerak ehuneko lau handitu direla, bereziki, toki ogasunen partaidetza-funtseko partidetan.

d) Ondarezko diru-sarrerak

2016ko eta 2015eko ondarezko diru-sarreraren osaketaren xehetasunak honako hauek dira:

Ondarezko diru-sarrerak	Aitortutako eskubideak		Aldea, portzen-tajea
	2015	2016	2016/2015
Nekazaritzako eta oihangintzako aprobetxamenduak	43.655	39.417	-10
Horma-hilobien eta hilobien emakida	0	21.000	100
Herri-lurretako larreen errentamendua	13.262	16.604	25
Autobus geltokiko eta igerilekuetako tabernaren emakida	15.208	15.208	0
Bestelako diru-sarrerak	1.544	944	-39
Guztira	73.669	93.173	26

Kapitulu honen igoeraren arrazoia da, funtsean, nitxoien eta hilobien emakidarengatiko diru-sarrerak 2015eko ekitaldira arte tasen, prezio publikoen eta bestelako diru-sarrerei dagokien 3. kapituluan erregistratzen zirela.

Herri-lurretako belarren errentamenduaren bidezko diru-sarrereren eta autobus-geltokiko tabernako emakidari dagozkion diru-sarrereren hautaketa bat egin dugu, haiek berrikuste aldera, eta egiaztatu dugu ezen, oro har, haien izapidetzea, justifikazioa eta kontabilizatzea araudiaren araberakoak direla.

e) Itxitako ekitaldietako aurrekontuak. Diru-sarrerak.

Hurrengo taulan itxitako aurrekontuetako diru-sarrereren kontzeptu horren bilakaera erakusten dugu:

Urtea	Hasierako saldoa 2016-01-01ean	2016ko kobrantzak	Kaudimen gabeziak eta beste baja batzuk	Amaierako saldoa 2016-12-31n	Amaierako saldoa (%)	Hasierako saldoaren gaineko kobrantzen %
2015	537.649	266.646	12.452	258.573	17	12
2014	227.326	40.040	10.406	176.880	12	2
2013	454.743	273.847	11.355	169.541	11	13
2012	194.284	15.687	8.989	169.608	11	1
2011	191.532	12.450	8.910	170.172	11	1
2010	136.329	3.564	-869	133.634	9	0
2009a eta aurrekoak	409.803	4.150	1.095	405.453	29	0
Guztira	2.151.666	616.384	52.338	1.483.861	100	30

2015eko ekitaldiko saldoak 80.000 euroko zenbateko bat jasotzen du, Udalak zahar-etxeari egindako ekarpenari dagokiona; bada, 2016ko abenduaren 31n ordaindu gabe dago ekarpen hori.

Honako hauek dira 2016ko abenduaren 31n kobratzeko dauden 1. kapituluko ekitaldi itxietako diru-sarrereren saldoen zenbatekoa eta portzentajea, 2010eko ekitalditik hasita:

Urtea	Guztizko saldoa 2016-12-31n	1. kapituluaren saldoa 2016-12-31n	Kobrantza (%)
2015	258.573	161.557	62
2014	176.880	155.918	88
2013	169.541	154.984	91
2012	169.608	150.650	89
2011	170.172	145.486	85
2010	133.634	117.845	88
Itxitako aurrekontuetako guztizko diru-sarrerak, 1. kapitulua	1.078.408	886.440	82

Udalak hirugarren batekin kontratatua du betearazteko egoeran dauden ordainagiri guztien kobrantzarako laguntza-zerbitzua.

Gure gomendioak:

- *Itxitako ekitaldietako diru-sarrereren saldoak berrikustea, gaur egun behin betiko kobraezintzat jo daitezkeen idazpenak erregularizatzeko.*
- *Itxitako aurrekontuetako diru-sarrereren kontzeptu desberdinen kobrantza errazten duten metodo eta mekanismoak indartzea.*

Ignacio Cabeza del Salvador auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2018ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Asunción Olaechea Estanga